

BIKINGOAK EUSKAL HERRIAN

Egileak: Iñigo Adan eta Iñaki Domingo

Bikingoak Euskal Herrian berez ez da joko bat, **Aizkorak zorrotu!** guda-jokorako gehigarria baizik; hortaz, aipatutako arautegia behar da berton agertzen diren gudaroste zerrendak erabiltzeko.



Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 2.5 Euskal Herria

Hau edozeinentzako laburpen ulergarria da, ez lizentziaren ordezkoa. Hemen duzu lizentziaren testu osoa:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/2.5/es/legalcode.eu>

Zer egin daiteke:

Partekatu: materiala edozein bide eta eran kopia eta birbanatu.

Egokitu: materialetik berria sortu, nahastu edo eraldatu.

Lizentziatzaileak ezin ditu askatasun hauek ukatu lizentziaren zehaztapenak betetzen badira...

...honako baldintza hauetan:

Aitortu: autoretza egoki aitortu, lizentziara daraman esteka jarri, eta aldaketarik egin den azaldu behar da. Azalpenok, bidezko eran bada, nahi bezala eman daitezke, beti ere berezko lizentziatzailearen oniritzia duzularik, edota egin nahi den erabilpenerako oniritzia duzunik adierazten ez bada.

EzKomertziala: materiala ezin erabil daiteke merkataritza helburuekin.

PartekatuBerdin: materialetik sortu, nahastu edo eraldatu eginez gero, material berria originalaren lizentzia berberarekin zabaldu behar da.

Ez dago bestelako murrizketarik. Ezin erabil daiteke lizentziak baimendutakoa mugatzen duen lege zehaztapenik, edo neurri teknologikorik.

Oharrak:

-Lizentziaren zehaztapenak ez dira bete behar eremu publikoarenak diren zatiekin, edota hauen erabilpena salbuespen edo mugaren batek baimentzen duenean.

-Ez dago bermerik. Baliteke lizentziak aurreikusitako erabilpenerako behar diren baimen guztiak ez eskaintzea. Esate baterako, beste eskubide batzuek (publizitate, pribatutasun, edota moral eskubideak adibidez) materialaren erabilpena muga dezakete.


Lemazainak branka hondartzarantz zuzendu zuen. Björn pozik zegoen, itsas zeharkaldia ez zen luzea izan, eta bidaiariak zein haien informatzaileek emandako datuak zehatzak izan ziren; bilatzen zuten lekua aurkitu zuten.

Aurrean hondartza zabal bat zeukaten, eta istriborrean itsasadarraren sarrera. Lekuak haien lurraldeko fiordoan antza handia ez bazuen ere, bazuen halako antzekotasun bat; mendiz inguratutako itsasadar hura, baso sarriak, eta eguraldi euritsua, nahiz eta hemengoa epelagoa izan. Ez zen etxean egotea bezalakorik; baina, leku atsegina zen, inondik inora. Bai, baso sarriak ikus zitezkeen inguru guztian; beraz, egurra ez zen faltako, ezta itsasoratzeko irteerarik halako itsasadar egokian. Bertan jarriko zuten sarraldiak burutu ahal izateko kokalekua.

Kostaldera hurbildu zirenean bitxia egin zitzaion Björn-i sua mendi baten tontorrean ikustea; orain ondoko gailurretan beste sute batzuk ikus zitezkeen; ez zegoen zalantzarik, seinale bat zen. Bertako biztanleak jakinaren gainean zeuden. Dena dela, ohituta zeuden, ez zen lehendabiziko aldia hau gertatzen zena, horretaz gain, denboraldi baterako bertan geratzeko asmoa izanik ezustekoa ez zen aldi honetan erabili beharreko estrategia.

Bikingoak Euskal Herrian zeuden; eta geratzeko asmoa zeukaten.




"Gjermundbu" kasketa.
Buruzagi baten burukoa. X. mendea,
Norvegia. (Kulturhistorisk museum).

Pentsa zitekeenaren kontrara, bikingoak ez ziren Euskal Herrira heldu alderrai ibili ostean inguruetakoko itsasoetan. Euren ohiturei jarraituz bazuten informazioa, oso zehatza izan ala ez, gure lurrei buruz; bidaiariak galdekatu ohi zituzten eta haien informatzaileek emandako datuak aztertu eta erkatzen zituzten sarraldiak burutu aurretik. Beraz, pentsa daiteke hona iritsi baino lehen, orografiari buruzko informazioa edukiko zutela; hau da, non zeuden haien drakarrekin sartzeko itsasadar egokiak, baita faktoriak jartzeko kokaleku onak ere.

Ez naiz hasiko beste iturri batzuetan aurki daitekeen informazioa ematen; egon badaude-eta edozein eratako euskarritan gai eta garai honi buruzko dokumentuak; beraz, bestelako datuetan zentratuko naiz. Esate baterako askotan harritu gara gai honi buruzko saiakerak irakurtzean, zelan zen posiblea inguruotan bikingoak ibili baziren ere, aurkikuntza arkeologikorik ez egotea; nola da posible haien ibilerak jarraitzea? Ba historia, kondaira, folklore, eta batzuen arabera toponimiari jarraiki.

Ipar Euskal Herrian egindako sarraldiak aski dokumentaturik daude; 814 urtean bikingoek sarraldiak burutu zituzten Akitaniako kostaldean eta handik aurrera Baionan kokatu ziren IX eta X mendeetan zehar. Ikerlari batzuen aburuz, beren sarraldiak egiteko Kantauri itsasotik sartu ziren hegoaldean; eta liburu zein artikulua batzuetan proposatzen den moduan Bizkaiko kostaldeko zenbait lekutan, Busturia inguruan kasurako, faktoriak jarri ei zituztela, bai egurra ustiatzeko itsasontziak egiteko, zein bertatik sarraldiak egin ahal izateko. Era honetan ulergarria liteke nora eraman zuten, bahitu ostean, Iruñeako Erresumako erregea, Gartzia Eneko I.a, Eneko Arizaren semea, 859an, ordainsaria negoziatu bitartean. Antza, sarraldi hura Björn Ragnarsson-ek eta Hastein-ek gidatu zuten, biak ala biak Ragnar Lodbrok-en semeak, 69 drakar-ez osatutako itsasontzi talde batekin.

Baina, gatozen harira; nolakoak ziren gure kostaldera hurbildu eta Iruñearaino heldu ziren iparraldeko gerlari hauek, edo hobeto esanda, nolakoa zen haien egitura militarra?

Hainbat web gune eta liburutan aurkitutako informazioa kontuan izanik, hauxe da nire ustez bikingoen gudarostearen osaera posible bat gure jokorako:

Komandante bat; erregea, *earl*, *jarl* edota buruzagi bat izan zitekeena. Buruzagi honen babeserako **segizioa;** batzuetan *hird* edo *hired* izeneko kofradia osatzen zuten gerlari hauek, eta bere kideak, leialtasun dohainean oinarriturik, arau zurrunen bidez loturik zeuden.

Sagen arabera talde berezien artean, **berserkir** "hartz larrudunak" edo **ulfhednar** "otso larrudunak" zeuden, zeintzuk gerlaririk adoretuenak omen ziren.

Hurrengo mailan "gizon askeak" zeuden. Honen barruan **bonder-ak**, "nekazari askeak", gudarostearen ardatza zirenak. Betidanik "gizon askeak" izena erabili bada ere, gure joko honetarako **skjaldmö**, "emakume ezkutariak", taldea ere sortu dugu. Izan ere, Shane McLeol-ek, Mendebaldeko Australiako Unibertsitateko Erdi aroko eta Era modernoko ikerketarako Zentrokoak, egindako ikerketen arabera gerlari bikingoen kopuru handia, baliteke erdia izatea, emakumeak ziren. Aipatzekoa da azken ikerketak burutzeko DNA probak egin zirela, eta artikulua "Early Medieval Europe" aldizkarian argitaratu zela. Dena dela, emakume hauek beste gerlariekin batera borrokatzen baziren ere, jokorako aparteko talde bezala txertatu dugu, aniztasuna ematearren zerrendari.



Badirudi **arkulariak** ere talde berezien artean kokatzen zirela; hots, gerlari espezializatuen artean zeudela, hori dela eta talde berezien artean sartuko ditugu. Horretaz gain, eta kontsultatutako dokumentuen arabera, garai honetan zalduneriak ez zen erabiltzen guda talde moduan. Bai dela egia zaldiak erabiltzen zirela, baina gehiago gizarte maila adierazteko edota mezularien zerbitzurako. Beraz, armadaren osaeran ez dira aintzat hartuko.

Hortaz, era honetan osatuko dugu bikingoen gudarostea:

Pertsonaiak: jarl (komandantea), kapitaina, skjaldmö-en buruzagia (emakume ezkutarien buruzagia), eta buruzagi berserkerra.

Unitate arruntak: aizkoradun gerlariak (bonder-ak), skjaldmö-ak (emakume ezkutariak), eta lantzariak (hauek ere bonder-ak).

Unitate bereziak: bonder arkulariak (esploratzaileak izan daitezkeenak), eta berserkerrak.



**Bikingoen aroko
aizkora buruak.**

BIKINGOAK

Pertsonaiak

Jarl (Inf): 55 p

Mugimendua	Erasoa	Babesa	Tiroa	Zalutasuna	Adimena	Adorea	Garrantzia
10	Ona	Arrunta	Arrunta	Arrunta	Arrunta	Ona	3

Armak eta armadura: Eskuko arma eta babes ertaineko armadura.

Armak bi eskuetan lor ditzake 9 punturen truke, edo bi eskuko arma 6 puntu; lantzak 3 puntu balio du; ezkutua 6 puntu. Armadura astuna jantziz gero (babes “ona”) 5 punturen truke.

Kapitaina (Inf): 28 p

Mugimendua	Erasoa	Babesa	Tiroa	Zalutasuna	Adimena	Adorea	Garrantzia
10	Ona	Arrunta	Arrunta	Arrunta	Arrunta	Ona	2

Armak eta armadura: Eskuko arma eta babes ertaineko armadura.

Armak bi eskuetan lor ditzake 6 punturen truke, edo bi eskuko arma 4 puntu; lantzak 2 puntu balio du; ezkutua 4 puntu. Armadura astuna jantziz gero (babes “ona”) 3 punturen truke.

Skjaldmö-en buruzagia (Emakume ezkutarien buruzagia) (Inf): 25 p

Mugimendua	Erasoa	Babesa	Tiroa	Zalutasuna	Adimena	Adorea	Garrantzia
10	Arrunta	Arrunta	Arrunta	Arrunta	Arrunta	Ona	2

Armak eta armadura: Eskuko arma eta babes ertaineko armadura.

Bi eskuko arma 4 puntu; lantzak 2 puntu balio du; ezkutua 4 puntu. Armadura astuna jantziz gero (babes “ona”) 3 punturen truke.

Arau bereziak: Diziplinaduna.

Buruzagi berserkerra (Inf.): 35 p

Mugimendua	Erasoa	Babesa	Tiroa	Zalutasuna	Adimena	Adorea	Garrantzia
10	Arrunta	Eskasa	Eskasa	Arrunta	Arrunta	Ona	2

Armak eta armadura: Eskuko arma eta babes arineko armadura.

Armak bi eskuetan lor ditzake 6 punturen truke, edo bi eskuko arma 4 puntu; jaurtigaia 2 punturen truke.

Arau bereziak: Basatia eta gogorra.

Aizkoradun gerlariak (Inf): 15 p

Mugimendua	Erasoa	Babesa	Tiroa	Zalutasuna	Adimena	Adorea	Garrantzia
10	Ona	Ona	Eskasa	Arrunta	Arrunta	Arrunta	1

Arma eta armadura: Bi eskuko arma eta babes astuneko armadura.

Ezkatua eraman dezakete 2 punturen truke.

Arau bereziak: Oldar ankerra eta ausartak.

Kop: 3/10

Skjaldmö-ak (Emakume ezkutariak) (Inf): 9 p

Mugimendua	Erasoa	Babesa	Tiroa	Zalutasuna	Adimena	Adorea	Garrantzia
10	Arrunta	Arrunta	Eskasa	Arrunta	Arrunta	Arrunta	1

Arma eta armadura: Eskuko arma eta babes ertaineko armadura.

Ezkatua 2 punturen truke; lantzak puntu 1 balio du.

Arau bereziak: Diziplinadunak.

Kop: 4/12

Bonder lantzariak (Inf): 10 p

Mugimendua	Erasoa	Babesa	Tiroa	Zalutasuna	Adimena	Adorea	Garrantzia
10	Arrunta	Arrunta	Eskasa	Arrunta	Arrunta	Arrunta	1

Arma eta armadura: Eskuko arma, babes ertaineko armadura eta lantza.

Ezkatuak 2 punturen truke.

Kop: 4/12

Bonder arkulariak (Inf): 12 p

Mugimendua	Erasoa	Babesa	Tiroa	Zalutasuna	Adimena	Adorea	Garrantzia
10	Arrunta	Eskasa	Arrunta	Arrunta	Arrunta	Arrunta	1

Armak eta armadura: Eskuko arma, babes arineko armadura eta arkua.

Armadura ertaina jantziz gero (babes "arrunta") puntu bat.

Arau bereziak: Esploratzaileak (arau berezi hau aukeratuz gero gehi 4).

Kop: 4/12

Gehienez: Esploratzaile talde bat askoz jota.

Berserkerrak (Inf): 14 p

Mugimendua	Erasoa	Babesa	Tiroa	Zalutasuna	Adimena	Adorea	Garrantzia
10	Arrunta	Eskasa	Eskasa	Arrunta	Arrunta	Arrunta	1

Armak eta armadura: Eskuko arma eta babes arineko armadura.

Bi eskuko armarekin 2 punturen truke. Armak bi eskuetan 3 puntu. Jaurtigaiek puntu 1 balio dute.

Arau bereziak: Basatiak eta gogorrak.

Kop: 4/12

Asko ziren herrira hurbiltzen zirenetan entzun zituen ipuin eta kondairak; baina, zalantzarik gabe herensugeari buruzkoa izan zen denen artean bitxia bere ustez. Ziurrenik lehenengo aldiz izan zelako izaki zoragarri horri buruzko istoriorik entzuten zuela. Hamaika aldiz entzunak zituen lamia, basajaun edota galtzagorrien ipuinak; hortaz, ezer berririk ez aurreko asteko azoka eguna arte. Egun horretan, osabari aziendekin lagundutakoan, ipuin kontalarien kalaka amaigabea entzuten lotu zelarik, ezuste atsegina izan zuen herensugeari buruzko kondaira entzutean. Zerbait berria, etxera bueltan lagun eta senideei kontatu ahal izateko.

Dena den ezusteko handiagoa izan zen etxerako bueltan kausituko zuena. Familiaren etxalde inguruan menditarrak ikus zitzakeen, arma gizonak, zaldizkoak...; denak gerrarako prest. Eta are harrigarriagoa gerlari baten ahotik entzun zuena; herensuge bat ikusi omen zuten ibaitik gora zetorrela. Halere, beti bezala bi egun geroxeago egunerokotasunean murgilduta zegoen berriro ere; entzun eta ikusitakoa ia ahanzteraino.

Hurrengo bi asteak gogotik eman zituen lanean; etxaldean ez zen lanik falta. Alabaina noizean behin berrikerarako denbora harturik inguruetakoz biztanleekin berriak eta txutxu-mutxuak trukatzeko ibiltzen zen. Horrela entzun zuen Iruñean bataila handia gertatu ei zela, baita erregea hil edota bahitu zuela armada arrotz batek ere. Dena dela, haren mundu txikian urrun jazotakoak ziren haiek.

Egun euritsu baten arratsaldean, galdutako behi baten bila abiatu zen, eta ibai ondotik igarotzean, laino artetik herensugearen burua ikusi zuen. Ipuinetan kontatutakoaren arabera behintzat halakoa behar zuela izan pentsatu zuen. Tarte bat geldirik, beldurrak jota, eman ostean, eta herensugea ez zela mugitzen ikusirik, hurbiltzeko erabakia hartu zuen.

Lainoa hain trinkoa ez zen lekurantz gerturatzean, konturatu zen bertan zegoena ez zela herensuge bat, baizik eta itsasontzi bat. Hurbildu eta berehala ikusi ahal izan zuen brankaren albo batean zulo handia zuela, ziurrenik ibaiko harkaitz baten aurka jotakoan egindakoa. Ingurua oinatzez beteta zegoen, talde armatu bat hortik pasatu zelako seinale.

Etsaia etxean sartua zen, haiek konturatu gabe.

Nire asmoa IX. mendeko baskoien armada zerrenda osatzea da; horretarako hainbat nekropolitan aurkitutako armamentuan oinarritu naiz; batez ere Arabako Aldaieta (VI.-VII. mende bitartekoa), San Pelaio (VI.-VII. mende bitartekoa) eta San Martin Dulantziko nekropolietan (K.a. II. K.o. IX. mende bitartekoa); Bizkaiko San Martin Finagakoan (VI.-VII. mende bitartekoa); eta Nafarroako Buzaga (VI.-VII. mende bitartekoa) zein Kondestablearen etxea deritzon (VI.-VII. mende bitartekoa).



Lantza puntak.
Aldaieta.

Zenbait liburutan baskoiei buruz agerturiko aipamenak ere kontuan izan ditut (ikusi bibliografia). Beraz, zerrendak neuk osatutakoak dira, ez baita inongo agiritan agertzen zein zen armada baskoiaren osaketa.



↑
Scramasax-a.
Buzagako nekropolia.

Informazio iturri moduan erabilitako nekropoli gehienak VI. eta VII. mende bitartekoak badira ere, bertan aurkitutako arma motak hurrengo mendeetan ere erabiliak izan zirela ondoriozta daiteke, horiexek izan baitziren Europako beste lurraldeetan erabiltzen zirenak. Halaber, Agustin Azkarate Garai-Olaun ikertzailearen arabera nekropoli hauetan aurkitutako pertsonen jatorria (1) ez gukeke bisigodo edota frankoen artean bilatu beharko, baizik eta bertako biztanleen artean, zeinek harreman handia izango luketen Akitaniako populazioarekin, baita haiengandik jasandako eragina ere ; beraz, leku hauetan aurkitutako materiala erabilgarritzat hartzen dugu geure asmorako.

Has gaitezen beraz dauzkagun datuak atalka aztertzen, gerora proposamen bat egiteko.

Armamentua

Esan daiteke ez direla asko aurkitutako defentsa armak; Arabako La Hoya (IV. mendekoa) deritzon aztarnategian erredola baten aztarnak eta Aldaietan larruzko kasketa baten metalezko egitura. Halere, badirudi garai haietan erabiltzen ziren ezkutuak, baita penintsula osoan ere, erredola tamainakoak zirela. Beato de Urgel eskuizkribuan (X. mendekoa) ere gisa honetako ezkutuak agertzen dira margoetan (2), eta adituen arabera era horretako ezkutuak, erredolak hain zuzen ere, ziren garai haietan penintsula osoan erabilienak. Geure proposamenean erredolak zein ezkutuak dira

armamentu artean eskuragarri daudenak; alde batetik arestian aipatutakoagatik, eta baita etsaiei lapurtutako zein eraildakoei kendutako materiala izan zitekeelako ere.

Ezpatei dagokienez, aho bakarreko ezpata labur asko, scramasax (sax) deiturikoak agertu dira ia aztarnategi guztietan, garai hartan Europa osoan guztiz ohikoak zirenak. Era berean aho biko zein aho bakarreko ezpata luzeak ere aurki daitezke, hain ugariak ez badira ere. Ezpata hauen jatorriari dagokionez zera esan daiteke; garai haietarako ba omen zegoen metalurgia aktibitatea inguruotan, Trapagaranen adibidez (3), hortaz, oso liteke arma hauek bertan egin izana.



↑
Aizkora buruak.
Aldaietako
nekropolia.

(1) A. Azkarate Garai-Olaun. Sacralidad y Arqueología, Antig. Crist. (Murcia) XXI, 2004, 389-413 orrialdeak.

¿REIHENGRÄBERFELDER AL SUR DE LOS PIRINEOS OCCIDENTALES?

(2) Desperta ferro. Antigua y medieval. nº 26. Los vikingos. 54. orrialdea.

(3) Karmele Artetxe Sanchez. Historia eta fikzioa: Karlomagno Euskal Herrian VIII-IX. mendeetan. UEU, Bilbo, 2001. 62. orriadea.

Alabaina, ezin da baztertu jatorri frankoa izatea, garai haietan oso komertzio garrantzitsua baitzegoen armekin (4); dena dela, frankoek saltzen zituzten ezpatek zer nolako prezioa zeukaten jakinda, logikoa da pentsatzea goi mailako pertsonaiek baino ezin izango zituztela erosi; hori dela kausa, ziurrenik, arruntagoak ziren scramasax-ak. Gure zerrendan, eskuko arma aipatzen denean, aho biko zein bakarreko ezpata luzeak pertsonaiek erabiliko dituzte, scramasax-ak, berriz, unitateko gerlariek; arma gizonen kasuan izan ezik, hauek ere ezpata luzeak erabiliko dituzte eta.



Aizkora burua.
Aldaietako nekropolia.

Nekropolietan aurkitutako lantza puntak ugariak dira, batzuk infanteria lantzak ziurrenik eta baita azkonak ere, erabilera honi buruzko dokumenturik aurkitu ez dugun arren. Guk bi eratako lantzak erabiliko ditugu armamentu atalean.

Jaurtitzekoak ziren aizkora ugari agertu dira; azken hauek lau motatakoak zirenak, gainera, haietariko batek ez du antzekorik Europa mendebaldean; hortaz, bertan egindakoa dela dirudi. Hori dela eta, aizkora mota berezi honek pentsaraz diezaguke bertan metalurgia industria garatuta egon behar zela, eta horregatik jatorriari buruzko goian aipaturiko hipotesia. Pertsonaien zein unitateen

kasuetan eskuko arma aipatzen denean ezpatak zein aizkorak izan daitezke, ez bada beren beregi aipatzen zein den arma mota, esaterako menditarren unitatea.

Gezi puntak, berriz, ez dira hain ugariak, hortaz, logikoena da pentsatzea arkuak erabiliagatik ez zirela gerrarako hain erabiliak. Hori dela kausa arkulari unitate kopurua batera mugatu dugu.

Gerlari unitateak

Gerlari unitateei dagokienez hauxe liteke gure proposamena eta argudiaketa:

Pertsonaiak:	komandante eta kapitainak; infanteria zein zalduneriarako.
Unitate arruntak:	infanteria arina, milizia eta arkulariak.
Unitate bereziak:	menditarrak, arma gizonak eta zalduneria arina.



Aho biko ezpata.
Finagako nekropolia.

Zenbait unitate dokumentatuta daude, nolabait; beste batzuk, ordea, logika erabiliz osatu ditut. Hona hemen bakoitzaren argudiaketa.

Infanteria arina

A. Schulten-en artikuluan zera irakur dezakegu (5):

"SILIO ITALICO menciona repetidas veces a los Vascones en su descripción de tribus ibéricas, la que se funda en buenas fuentes antiguas (Posidonio?):

Pun. 5, 357: nec Cerretani, quondam Tiryntia castra, aut Vasco insuetus galeae ferre arma morati;

(4) Desperta ferro. Antigua y medieval. nº 26. Los vikingos. 25. orrialdea.

(5) Schulten, Adolf. (1927). *Eusko Ikaskuntza. Las referencias sobre los Vascones hasta el año 810 después de J.C.* París. (Federico Claus-ek espainolera itzulita). 229. orrialdea.



Lantza buruak eta ezpatak. Buzagako nekropolia

Lusitanos acostumbraban combatir teniendo la cabeza desnuda, sin casco, ni protección de otra clase. La explicación «contempto tegmine» es retórica; el motivo principal habrá sido que los Vascones, lo mismo que los Germanos (Tac. Germ. 6), carecían de armas defensivas por falta de cultura y por pobreza. Nos representaremos pues a los Vascones como Iberos típicos, de armamento ligero, con 2 jabalinas, una pequeña rodela, una casaca y polainas."

Merezi du sinestea Baskoiak arma arinekin borrokatzen zirenari buruzko aipamenak, kasketa barik, jakinda beste Iberiarrek ohitura hori zutela. Bestalde, App. Iber. 67an eta Estrabbn 154an (I, 225. zenbakia) egiten diren aipamenei esker ziurta dezakegu Lusitarrek burua babesik gabe borrokatzeko ohitura zeukatela, kasketa barik, ezta bestelako babesik gabe ere. "Contempto tegmine" azalpena erretorikoa da; azalpena zera izango litzateke; Baskoiek, Germaniarrek bezala (Tac. Germ. 6), ez zeukatela defentsa armarik, kultura eza zein txirotasuna dela eta. Beraz, Baskoiak hurrengo eran irudikatuko ditugu; Iberiarren moduan, arma arinekin, bi azkonekin, erredola txiki batekin, kasaka eta galtzoienekin.

Zalduneria arina

Hurrengo aipamena Manex Goyhenetche-ren liburutik aterata dago (6):

"La caballería de los vascones

(...) A falta de un conocimiento total de sus estructuras sociales y económicas, los textos nos ofrecen cuando menos algunos aspectos de la potencia y técnica militares de los vascones. Volvamos al texto de Fredegario, que describe su manera de combatir: "Habiendo comenzado el combate, volvieron la espalda como tenían costumbre de hacer" (nota 41). La expresión latina utilizada es "terga vertentes". Se trata de una técnica de caballería ligera utilizada ya en época romana por los "equites hispani" y que pudimos observar ya en la batalla de Sos (notas 9-12 y 25 de la parte II). Eran jinetes ligeros armados de lanza o arco. La ligereza de montura y equipamiento les permitía utilizar a su favor la topografía de un terreno accidentado, el del "Wasconun saltus". Esta técnica exigía una estrecha y constante vigilancia de las tropas enemigas en terreno descubierto (el famoso "ager Wasconum"), el ataque sorpresa y la operación relámpago en un relieve escarpado que permitía una huida rápida. Encontramos todo ello en el detallado relato de la batalla de Roncesvalles que nos dejó Eginardo⁸⁵."

Baskoien zalduneria

(...) Haien gizarte zein ekonomia egituren osareri buruzko ezaguera erabatekoak ez baditugu ere, testuak argigarriak suerta daitezke baskoien teknika zein indar militarren ezaugarri batzuk ezagutzeko. Hel diezaiogun Fredegario-ren testuari, haien borrokatzeko era deskribatzen duenari, hain zuzen ere: "Borroka hasi zelarik, bizkarra eman zioten etsaiari, egin ohi zuten bezala" (41. oharra). Erabiltzen den latindar esamoldea "terga vertentes" da. Erromatar garaian "equites hispani"-ek erabilitako zalduneria arinaren teknika da, Sos-eko batailan agertu zena (II zatiko 9.-12. eta 25. oharrak).



Lantza buruak.

(6) Manex Goyhenetche. Historia general del Pais Vasco. Tomo I. Ttartalo. (153-154. or.)

5, 195: tum que non alius venalem in proelia dextram ociar attulerit conductaque bella probarit Cantaber et galeae contempto tegmine Vasco;

9, 197: Cantaber ante alios nec tectus tempora Vasco;

10, 15: ac iuvenem, quem Vasco levis, quem spicula densus Cantabn urgebat.

Merece creerse la indicación de que los Vascones solieran luchar con un armamento ligero, sin casco, dado que los demás Iberos tenían semejante costumbre. En particular queda confirmado por App. Iber. 67 y Estrabbn 154 (Núm. I, 225), que los

Zalduneria arina zen, lantza edo arkuz armatua. Zelaberearen zein armamentuaren arintasunak topografia malkartsua ("Vasconun saltus"-arena) bere alde erabiltzea ahalbideratzen zuen. Teknika honek lurralde zabalean ("ager Vasconum") zeuden arerioaren gerlari taldeak etengabe eta hurbiletik zelatatzea eskatzen zuen; geroago uste gabeko erasoa eta ekintza azkarra, malkartsua zen zonaldean, zein ihesaldi arina egiteko aukera ematen zuena. Hau guztia Eginardo-k85 utzi zigun Orreagako batailari buruzko kontakizun zehatzean aurki dezakegu. (itzulpen libre)

Era berean, jadanik erromatar garaian, bertoko zalduneria erabili zen Erromako armada osatzeko, ez baskoiak baina bai barduloak; Jose Luis Orella-ren liburuan aurkitu dugu hurrengo paragrafoa (7):

"Los vándulos formaron una cohorte de infantería montada auxiliar que está documentada en el norte de Inglaterra, en Hihg Rochester, en Northumberland. Se la designa en las inscripciones del siglo III d.C. como I Fida Vardollorum Equitata."

"Barduloek zaldizko infanteria laguntzaile cohorte bat osatu zuten, zeina Ingalaterrako iparraldean dokumentaturik dagoen, Northumberland-eko Hihg Rochester-en, hain zuzen ere. K.o. III. mendeko inskripzioetan I Fida Vardollorum Equitata bezala deritzona".



↑
Gerriko belarria.
Aldaietako nekropolia.

Eta ez dugu uste erromatarrak bere menpeko lurraldeetan ibiliko zirenik jatorrizko biztanleak trebatzen zalduneria unitateak osatzeko; hortaz, litekeena da barduloek berezko trebezia izatea horretarako, inguruko beste tribuek bezala.

Azkena Gran Atlas histórico de Euskal Herria liburutik eskuratutakoa da (8):



↑
Urrezko eraztuna.
Dulantzi (Araba).

"En todas las ocasiones los vascones parecen constituir la principal fuerza de choque del ejército aquitano. Su capacidad militar residía, al parecer, en el uso de una caballería capaz de actuar con rápidos movimientos envolventes, lo que les concedía una neta superioridad sobre la infantería merovingia. Pero, además los vascones participaron también en la guerra de posiciones que llevaron a cabo francos y aquitanos."

"Gertaera guztietan badirudi baskoiek akitaniar armadaren borroka talde nagusia osatu zutela. Antza, bere borroka gaitasuna zaldunieran zetzan, zeinak inguratzeko mugimendu azkarrei esker, merovingiar infanteria aise irabaz zezakeen. Horretaz gain, baskoiek franko eta akitaniarren arteko posizio gudan ere parte hartu zuten."

Hurrengo unitateetarako ez dago dokumentaturiko informaziorik, beraz, geuk ondorioztatutakoak dira.

Milizia

Garai hartako inguruko erresuma eta lurraldeetan arrunta zen "leba" deituriko errekrutatze sistema, beraz, pentsatzekoa da Iruñeako Erresuman ere halaxe gertatzea. Ziurrenik arinki armaturiko biztanleak-eta izango lirатеke.

(7) José Luis Orella. Historia de Euskal Herria. Tomo I. Los vascos de ayer. Txalaparta. Tafalla. 1996. (21. or.)

(8) Nosotros LOS VASCOS. Gran atlas histórico de Euskal Herria. Lur, Bilbao, 1995. (60. orrialdea).

Menditarrak

Aurreko unitatearen parekoa izango litzateke, baina, kasu honetan erabiliko ziren gerlari edota errekrutatutako pertsonak, inguruaren ezagutza handiak izanik, aztarnari edo esploratzaile moduan arituko lirateke; joko honetarako mendialdeko gerlari bezala irudikatu nahi izan ditugu.

Arma gizonak eta arkulariak

Erresuma bat bazegoen, Iruñeako Erresuma, hain zuzen ere, pentsatzekoa da indar militar bat izango zuela; agian ez oso indar handia, dena dela, legea mantentzeko eta botereari eusteko, erregeak ezinbestekoa izango zuen armada edota gutxieneko indar militarra. Horregatik proposatzen dira unitate hauek. Armamentua, arma gizonen kasuan, beste unitateekin erkaturik astunagoa izango litzateke, eta baliteke defentsarako armak ere edukitzea; kasketak eta sare-begi kotak, frankoei erositakoak edota borroketan hildako etsaiei kendutakoak.

Arkulariak berriz ez lirateke hain arruntak izango, garai haietan oraindik ez baitziren kopuru handietan erabiltzen; hortaz, unitate txikia litzateke; unitate kopurua mugatzean irudikatu nahi izan duguna.

Janzkera

Guda-jokoei begira egindako artikulua izanik, janzkerari buruzko aipamenak egitea ere bururatu zaigu; izan ere, miniaturak aurkitu edota diseinatzeari dagokionez interesgarria iruditu zaigu. Aipamenak Euskomedia Fundazioak kudeatzen duen Auñamendi Eusko Entziklopediatik hartu ditugu, Janzkera Euskal Herrian ataletik, hain zuzen ere; hona hemen bertan aurkitutakoa (9):



Antzinaroa

K.a. I. mendekoa da idatzizko lehen erreferentzia, Baskoien janzkerari buruzkoa. Estrabonen *Geographica* lanean ikus dezakegu: "(...) eta ile luzea dute, nesken antzera, baina borrokatzeko zerrenda batekin jasotzen dute kopetaldea. Gizonak beltzez janzten dira, gehienek lotarako "sagós" eramaten dutelarik. Emakumeek lorezko apaingarriz hornitutako jantziak daramatzate". *Sagós* tunikari buruzko aipamena (buru eta besoetarako irekigune bat utziz jositako ehunezko pieza bat edo biz osatua), Sulpicio Severoren V. mendearen hastapeneko beste batekin (*Dialogorum libri*, 1,2; 1,8) osatzen da, artilezko mantu bati buruzkoa (*bigerricae*), erromatarrek Akitanian erabilia.

(9) Janzkera Euskal Herrian. Auñamendi Eusko Entziklopedia. Euskomedia fundazioa.

Erromako hirietan (*civitates*), Lampurdum (Baiona) delakotik Iruña-Veleiara (Araba) arte, bertako herritarrek, eskuarki, erromatarren jantzi klasikoa baitaratu zuten, barneko zuri *oihalez*, tunikez eta orkatiletarainoko mantuz (elkarri gainjarriak) osatuak. Lihoa eta artilea erabiltzen zuten jantzi horiek egiteko eta jantzi kopurua, kalitatea eta luxua jabearen gizarte-mailaren arabera izaten zen. Oinetako itxiak erabiltzen zituzten eta larruzko sandaliak. Tunika motzak plebeioentzat izaten ziren.

Erdi aroa

Inperioa desagertzean Europan hainbat erreinu berri sortu ziren. Erreinu horien artean kokatzen ziren baskoiak. V. eta VIII. mendeen artean gudari-leinu bat zegoen baskoien buru. Hori argi ikusten da haiek lurperatzeko erabili ziren nekropolietako hatuetan, esate baterako, Aldaietan (Araba): gerrikoen belarri-ziri eta edergarriak tuniak eta mantuak estutzeko, lokailu sinpleko



ehunez eginak, esate baterako, zume hostuestua eta tafeta; oinetakoen zolak josteko hiltzek, larruzko kaskoen metalezko sendogarriak, eraztunak eta kontu-lepokoak eta armamentu zabala, besteak beste, labanez, lantzen muturrez eta aizkoraz osatua. Material hondakin horiek Aimonioren kronikarekin osatzen dira. Kronika horretan Ludovicok Akitanian egin zuen egonaldian bere aita Karlomagnorekin elkartu zenekoa aipatzen da:

"(...) baskoien erara jantzita, bere adin bereko haurren gisara, tunika labur eta estu batekin, barnealdeko azpilduran biribildua, mahukak eskuetan zehar hedatuak, zango zabalak eta ezproiz hornitutako botak, eskuan lantza eutsirik".

(H^a Francorum, 5, 2).

Horrela dokumentatzen da baskoiek braie izeneko galtza luzeak baitaratu zituztela, frankoen modari jarraiki. Alderantziz botak eta ezproiak



Larraganenako hilarria. errege eta militar kutsuaren elementu dira, ez dira baskoien ohiko oinetako, izan ere, abarkak ziren baskoien usadiozko oinetakoak, zeintzuen idatzizko lehen erreferentzia 985. urtekoa den. Erreferentzia horretan esaten denez, abarkei eta zumei esker, Nafarroako erregea zen Antso Gartzesen ejertzitoak Pirinioetako igarobide elurtsuak igaro zituen, Iruña musulmanen setiotik libratzeko (Lucas de Tuy, *Crónica de España*, 1236).

VIII. mendetik XI. mendera bitarteko janzkera Iruñeako monarkiaren monasterioetan marraztutako kodizeen miniaturretan ikus daiteke (Albelda eta Donemiliaga), eta baita hilarrietan ere (Ranes eta Momoitio, Bizkaian). Erregegoa eta kleroa irudikatzen dira, orkatiletarainoko tunika eta mantuz jantzita, ekialdean inspiratuta. Badira salbuespenak, esate baterako, San Kristobal Iturrietako (Bizkaia) nekropolitik datorren hilarria. Bertan belaunetarainoko tunika ikusten da, aurrerantz eta atzealdean piko modura irekia (*armilausa*), bisigodoen eraginekoa.

BASKOIAK

Pertsonaiak

Komandantea (Zald): 79 p

Mugimendua	Erasoa	Babesa	Tiroa	Zalutasuna	Adimena	Adorea	Garrantzia
18	Ona	Arrunta	Arrunta	Arrunta	Arrunta	Ona	3

Armak eta armadura: Eskuko arma (aho bakarreko edo biko ezpata luzea), eta babes ertaineko armadura.

Ezkutua 6 punturen truke; azkonek 6 puntu.

Arau bereziak: Tribala eta zalditeria arina.

Komandantea (Inf): 55 p

Mugimendua	Erasoa	Babesa	Tiroa	Zalutasuna	Adimena	Adorea	Garrantzia
10	Ona	Arrunta	Arrunta	Arrunta	Arrunta	Ona	3

Armak eta armadura: Eskuko arma (aho bakarreko zein biko ezpata luzea) eta babes ertaineko armadura.

Armak bi eskuetan 9 punturen truke. Erredola 3 puntu; ezkutua 6; armadura astuna (babes "ona") 5 puntu; lantzak 3 puntu balio du, eta azkonek 6.

Arau bereziak: Tribala.

Kapitaina (Zald): 44 p

Mugimendua	Erasoa	Babesa	Tiroa	Zalutasuna	Adimena	Adorea	Garrantzia
18	Ona	Eskasa	Arrunta	Arrunta	Arrunta	Ona	2

Armak eta armadura: Eskuko arma (aho bakarreko zein biko ezpata luzea) eta babes arineko armadura.

Ezkutua 4 punturen truke; azkonek 4 puntu.

Arau bereziak: Tribala eta zalditeria arina.

Kapitaina (Inf): 28 p

Mugimendua	Erasoa	Babesa	Tiroa	Zalutasuna	Adimena	Adorea	Garrantzia
10	Ona	Arrunta	Arrunta	Arrunta	Arrunta	Ona	2

Armak eta armadura: Eskuko arma (ezpata luzea, aho bakarrekoa zein bikoa) eta babes ertaineko armadura.

Armak bi eskuetan 6 punturen truke. Erredola 2 puntu; ezkutua 4; armadura astunak (babes "ona") 3 puntu balio du; lantza 2 punturen truke, eta azkonek 4.

Arau bereziak: Tribala.

Unitate arruntak

Infanteria arina (Inf): 12 p

Mugimendua	Erasoa	Babesa	Tiroa	Zalutasuna	Adimena	Adorea	Garrantzia
10	Arrunta	Eskasa	Arrunta	Arrunta	Arrunta	Arrunta	1

Armak eta armadura: Eskuko arma (scramasax-a ala aizkora), babes arineko armadura eta azkonak.

Erredola puntu baten truke.

Arau bereziak: Tribalak eta jazartzaileak.

Kop: 3/10

Milizia (Inf): 7 p

Mugimendua	Erasoa	Babesa	Tiroa	Zalutasuna	Adimena	Adorea	Garrantzia
10	Eskasa	Eskasa	Eskasa	Arrunta	Arrunta	Arrunta	1

Armak eta armadura: Eskuko arma (scramasax-a ala aizkora) eta babes arineko armadura.

Erredola puntu baten truke, habaila 2 puntu.

Kop: 4/12

Arkulariak (Inf): 12 p

Mugimendua	Erasoa	Babesa	Tiroa	Zalutasuna	Adimena	Adorea	Garrantzia
10	Arrunta	Eskasa	Arrunta	Arrunta	Arrunta	Arrunta	1

Armak eta armadura: Eskuko arma (scramasax-a ala aizkora), babes arineko armadura eta arkua.

Babes ertaineko armadura (babes "arrunta") puntu baten truke.

Kop: 4/12

Gehienez: 1

Menditarrak (Inf): 13 p

Mugimendua	Erasoa	Babesa	Tiroa	Zalutasuna	Adimena	Adorea	Garrantzia
10	Ona	Eskasa	Arrunta	Arrunta	Arrunta	Arrunta	1

Armak eta armadura: Eskuko arma (aizkora) eta babes arineko armadura.

Arau bereziak: Esploratzaileak, tribalak eta eskalatzaileak.

Kop: 4/12

Gehienez: 2

Arma gizonak (Inf): 10 p

Mugimendua	Erasoa	Babesa	Tiroa	Zalutasuna	Adimena	Adorea	Garrantzia
10	Arrunta	Arrunta	Eskasa	Arrunta	Arrunta	Arrunta	1

Armak eta armadura: Eskuko arma (aho bakarreko zein biko ezpata luzea), babes ertaineko armadura eta lantza.

Ezcutua 2 punturen truke.

Arau bereziak: Tribalak.

Kop: 3/10

Gehienez: unitate bat

Zalduneria arina (Zald): 17 p

Mugimendua	Erasoa	Babesa	Tiroa	Zalutasuna	Adimena	Adorea	Garrantzia
18	Arrunta	Eskasa	Arrunta	Arrunta	Arrunta	Arrunta	1

Armak eta armadura: Eskuko arma (scramasax-a), eta babes arineko armadura.

Ezcutua 2 punturen truke eta azkonak 2ren truke.

Arau bereziak: Tribalak eta zalditeria arina.

Kop: 2/6

Gehienez: unitate bat

Informazioa:

Internet:

<https://baztangohaizegoa.wordpress.com/author/baztangohaizegoa/>

http://www.kazeta.eus/iritzia/Joseba_Aurkenerena/bikingoen-erasoak-eta-kokalekuak-euskal-herria-i

Liburuak:

- GOYHENETCHE, MANEX. (1999). *Historia general del País Vasco. Tomo I.* Ttartalo. Donostia.
- ARTETXE, KARMELE. (2001). *Historia eta fikzioa: Karlomagno Euskal Herria VIII-IX. mendeetan.* UEU Udako Euskal Unibertsitatea. Bilbo.
- AGUSTIN AZKARATE. (1995). *Nosotros LOS VASCOS. Gran Atlas Histórico de Euskal Herria. 4 Wasconia.* Lur, Bilbao.
- AGUSTÍN AZKARATE GARAI-OLAUN eta IÑAKI GARCÍA CAMINO. (2013). *Arkeologi museoaren koadernoak. 5 Baskonia, bitarteko lurra. Hileta-errituak mugan.* Gasteiz.
- JOSE LUIS ORELLA. (1996). *Historia de Euskal Herria. Tomo I. Los vascos de ayer.* Txalaparta. Tafalla.

Aldizkariak:

- **Desperta ferro** n°26. Los vikingos

Artikuluak:

- A. AZKARATE GARAI-OLAUN. (2004). *Sacralidad y Arqueología, Antig. Crist. (Murcia) XXI, 2004.* ¿Reihengräberfelder al sur de los Pirineos occidentales?
- SCHULTEN, ADOLF. (1927). *Eusko Ikaskuntza. Las referencias sobre los Vascones hasta el año 810 después de J.C.* París. (Federico Claus-ek espainolera itzulita).
- ERKOREKA, ANTON. (2005). "Vikingos en Euskal Herria." *Awnia* n° 11.
- AGUSTIN AZKARATE GARAI-OLAUN. *Aldaieta. Nanclares de Gamboa. Alava. Memorias de yacimientos alaveses. Tomo I. Memoria de la excavación e inventario de los hallazgos. (Nanclares de Gamboa, Alava).*
- ERKOREKA, ANTON. (2006). "A furore normanorum, libera nos Domine. Previkingos y vikingos asolando la costa vasca (siglos V-X)". *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 5, Untzi Museoa-Museo Naval, Donostia-San Sebastián.
- ERKOREKA, ANTON. (2004). *Los vikingos en la península ibérica. "Los vikingos en Vasconia "*.
- IÑAKI GARCIA CAMINO. (2001). *La aportación de la arqueología al estudio del tránsito entre la antigüedad y el medioevo en Bizkaia.*
- AITZOL ALTUNA ENZUNZA. *Una película sobre la falsa tesis de la "euskaldunización tardía".*

Argazkien egileak:

Armen argazkiak "Arkeologi museoaren koadernoak. 5 Baskonia, bitarteko lurra. Hileta-errituak mugan." liburutik hartuta daude.